



ORIOKOUNDALA

AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2010eko martxoaren 24a, asteazkena

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:00 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:05

BERTARATUAK:

Alkatea

Jon Redondo Lertxundi

Zinegotziak

Noemi Ostolaza Arkauz, Martxiel Genova Solaberrieta, Angel del Hoyo Bravo, Karmele Belasko Garro, Jose M. Goiburu Manzisidor, Leire Zinkunegi Lopez De Gereño, Iñaki Koldo Iturain Azpiroz, Iñaki Garcia Aranbarri, Juan Vicente Lasa Karrikaburu eta Jesus Jose Juan Rodriguez Pousa.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

AZTERGAI ZERRENDA

1. Irakurri eta onartzea, egoki bada, Udalbatzarrak 2010eko urtarrilaren 26an egindako ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.
2. Onartzea, egoki bada, baldintza administratibo partikularren orria, “Orioko Arau Subsidiarioetako 8. sektorean —Munto— kirol pistak egiteko proiektua” exekutatzeko obrak kontratatzeko, proiektu teknikoaren arabera, prozedura irekiz, presako tramitazioz eta lehiaketa bidez.
3. Onartzea, egoki bada, baldintza partikularren orria, Orioko Abaromendi 38, 40 eta 42 zenbakietan dauden zazpi merkataritzako lokal besterentzeko, lehiaketa publiko bidez.



4. Onartzea, egoki bada, baldintza partikularren orria, Orioko udal planeamenduko arau subsidiarioetako 8. sektoreko —Munto— exekuzio-unitatearen birpartzelazio-proiektutik eratorriko PR/1 partzelaren partaidetza indibisioa besterentzeko, lehiaketa publiko bidez.
5. Onartzea, egoki bada, baldintza partikularren orria, Orioko Iturbide 11n dagoen merkataritzako lokal bat besterentzeko, lehiaketa publiko bidez.
6. Eskatzea, egoki bada, Orioko udalerriko Oribarzar hondartzari baja ematea bainatzeko eremu gisa.
7. Onartzea, egoki bada, Orioko Udalaren eta Gipuzkoako Donostia Kutxa kreditu-entitatearen artean sinatuko den euskararen erabilera areagotzeko hitzarmenaren testua eta alkateari ahalmena ematea hitzarmen hori sinatzeko.
8. Izendatzea, egoki bada, kontseilari titular bat eta ordezkari bat, Gipuzkoa Donostia Kutzaren Batzar Nagusian Ordizia, Urnieta, Segura eta Orio udal elkartuen ordezkari izateko.
9. Onartzea, egoki bada, talde mistoko Karmele Belasko, Joseba Goiburu eta Leire Zinkunegi zinegotziek aurkeztutako mozioa, desagertu eta hilda agertu den Jon Anza Ortuñez euskal herritarraren kasuari buruz.

Esan-eginak

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAK 2010EKO URTARRILAREN 26AN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTAREN ZIRRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa), Iturain (EB-B/Aralar), Lasa (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **HAMAR ALDEKO BOTO**, udalbatzarkideen gehiengo absolutua; abstentzioak: Garcia (EB-B/Aralar), guztira **ABSTENTZIO BAT**]:

ONARTZEA Udalbatzarrak 2010eko urtarrilaren 26an egindako ohiko bilkurako akta.

Emandako botoa azaltzeko, Iñaki Garcia zinegotziak hartzen du hitza eta adierazten du abstentzio botoa eman duela ezin izan zuelako parte hartu 2010eko urtarrilaren 26an egindako udalbatzarraren bilkuran.

Joseba Goiburu talde mistoko zinegotziak ere hartzen du hitza eta adierazten du, bere ustez, komenigarri litzatekeela udalbatzarraren aktetan jasota geratzea bertaratu den publikoaren esanak; idazkariak erantzuten dio, esanez ez duela, toki-araubideko arauen



arabera, inolako lege-obligaziorik publikoaren esanak jasotzeko eta, beraz, ez dituela jasotzen.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN ORRIA, “ORIOKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO 8. SEKTOREAN —MUNTO— KIROL PISTAK EGITEKO PROIEKTUA” EXEKUTATZEKO OBRAK KONTRATATZEKO, PROIEKTU TEKNIKOAREN ARABERA, PROZEDURA IREKIZ, PRESAKO TRAMITAZIOZ ETA LEHIAKETA BIDEZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Gertutasuna, Giza Balioak eta Hirigintza batzorde informatzaileak eta Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzaileak 2010eko martxoaren 18an egindako bilkura bateratuan emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa), Iturain (EB-B/Aralar), Lasa (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **HAMAR ALDEKO BOTO**, udalbatzarkideen gehiengo absolutua; abstentzioak: Garcia (EB-B/Aralar), guztira **ABSTENTZIO BAT**]:

ONARTZEA baldintza administratibo partikularren orria, “Orioko Arau Subsidiarioetako 8. sektorean —Munto— kirol pistak egiteko proiektua” exekutatzeko obrak kontratatzeke, proiektu teknikoaren arabera, prozedura irekiz, presako tramitazioz eta lehiaketa bidez; baldintza-orriaren laburpena honako hau da:

1.- Erakunde adjudikatzailea.

- A) Erakundea: Orioko Udala.
- B) Espedientea tramitatzen duen bulegoa: Idazkaritza-kontu-hartzailletza

2.- Kontratuaren helburua.

- a) Helburuaren deskribapena: Orioko Arau Subsidiarioetako 8. sektorean —Munto— kirol pistak egiteko proiektua exekutatzeko obrak, Gestiur SLk idatzitako proiektu teknikoaren arabera eta espedientean ageri den eta kontratu izaera izango duen dokumentazio teknikoarekin bat etorriz.
- b) Exekuzio epea: 6 hilabete.

3.- Tramitazioa, prozedura eta adjudikatzeko era.

- A) Tramitazioa: Presazkoa.
- B) Prozedura: Irekia.
- C) Era: Lehiaketa.

4.- Lizitazioaren kopurua.



537.185 euro (BEZa barne). Lizitzaileek aukera izango dute kopuru hori hobetzeko.

5.- Bermeak.

- a) Behin-behinekoa: 13.892,72 euro.
- b) Behin betikoa: Kontratuaren adjudikazio kopuruaren % 5 (BEZa aparte).

6.- Kontratastaren sailkapena.

Lizitzaileek egiaztatu beharko dute ondoko talde, azpitalde eta kategorietan sailkatuta daudela:

Taldea:	Azpitaldea:	Kategoria:
A	2	b
C	2	b
C	7	b

7.- Iragarki gastuak.

Adjudikaziodunaren kontu eta kargura izango dira.

8.- Dokumentazioa lortzeko.

Espedienteko dokumentazio teknikoa Donostiako Urdeneta 4an dagoen COPISTERIA PLANITEC-en aztertu ahal izango da. Baldintza-orria www.orioko.com webgunean eta Udaleko bulego teknikoan eskuratu ahal izango da.

9.- Proposamenak aurkeztea.

- A) Epea: hamahiru egutegiko egun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.
- B) Aurkeztu beharreko dokumentazioa: Baldintza-orrian zehaztutakoa.
- C) Tokia: Udaletxeko idazkaritza-kontu-hartzailletza. Herriko Plaza, 1. 20810 ORIO.
- D) Orduetgia: Asteleheneretik ostiralera, 8:30etik 14:30era.

10.- Proposamenen irekiera.

- A) Tokia: Orioko Udala
- B) Data: Proposamenak aurkezteko epea bukatu eta laugarren lanegunean; egun hori larunbatarekin egokitzen bada, data hurrengo lanegunera pasako da.
- C) Ordua: 12:00etan.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, BALDINTZA PARTIKULARREN ORRIA, ORIOKO ABAROMENDI 38, 40 ETA 42 ZENBAKIAN DAUDEN ZAZPI MERKATARITZAKO LOKAL BETERENTZEKO, LEHIAKETA PUBLIKO BIDEZ.



Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Gertutasuna, Giza Balioak eta Hirigintza batzorde informatzaileak 2010eko martxoaren 9an egindako bilkuran emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Iturain (EB-B/Aralar), Lasa (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**, udalbatzarkideen gehiengo absolutua; kontrako botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa) eta Garcia (EB-B/Aralar), guztira **LAU KONTRAKO BOTO**]:

ONARTZEA baldintza partikularren orria, Orioko Abaromendi 38, 40 eta 42 zenbakietan dauden zazpi merkataritzako lokal besterentzeko, lehiaketa publiko bidez; baldintza-orriaren laburpena honako hau da:

1.- Erakunde adjudikatzailea.

- A) Erakundea: Orioko Udala.
- B) Espedientea tramitatzen duen bulegoa: Idazkaritza-kontu-hartzaitza

2.- Kontratuaren helburua.

- A) Helburuaren deskribapena: Orioko Abaromendi 38, 40 eta 42 zenbakietan dauden zazpi merkataritzako lokal besterentzea.
- B) Loteak: Zazpi.

3.- Tramitazioa, prozedura eta adjudikatzeko era.

- A) Tramitazioa: Ohikoa.
- B) Prozedura: Irekia.
- C) Era: Lehiaketa.

4.- Prezioa.

- 1. zenbakidun lokala: 106.080 EURO.
- 2. zenbakidun lokala: 113.280 EURO.
- 3. zenbakidun lokala: 85.440 EURO.
- 4. zenbakidun lokala: 61.440 EURO.
- 5. zenbakidun lokala: 64.320 EURO.
- 6. zenbakidun lokala: 67.440 EURO.
- 7. zenbakidun lokala: 88.560 EURO.

Aipatutako tipo edo oinarrizko prezio horretan ez daude sartuta ez BEZa, ez notario-gastuak eta ez Jabetza Erregistroaren gastuak; horiek adjudikaziodunak ordaindu beharko ditu.



Lizitatzailleen proposamen ekonomikoak goiko prezio horretatik gorakoak izango dira; ez dira onartuko tasa edo prezio hori berdindu edo igotzen ez duten proposamenak.

5.- Bermeak.

Behin-behinekoa: Lokal bakoitzaren lizitazio-tasaren %3.

6.- Iragarki gastuak.

Adjudikaziodunaren kontu eta kargura izango dira.

7.- Dokumentazio teknikoa lortzeko.

Espedientearen dokumentazio teknikoa Udaleko bulego teknikoan dago ikusgai.

8.- Proposamenak aurkeztea.

A) Epea: Berrogei egutegiko egun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

B) Aurkeztu beharreko dokumentazioa: Baldintza-orrian zehaztutakoa.

C) Tokia: Udaletxeko idazkaritza-kontu-hartzailera. Herriko Plaza, 1. 20810 ORIO.

D) Orduetgia: Astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era.

9.- Proposamenen irekiera.

A) Tokia: Orioko Udala

B) Data: Proposamenak aurkezteko epea bukatu eta hirugarren lanegunean; egun hori larunbatarekin egokitzen bada, data hurrengo lanegunera pasako da.

C) Ordua: 12:00etan.

Emandako botoa azaltzeko, Joseba Goiburu talde mistoko zinegotziak hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak kontrako botoa eman duela ez dagoelako ados Abaromendi kaleko merkataritzako lokal guzti horiek besterentzearekin; horren orde, bere taldeak proposatzen du, batzorde informatzailean adierazi zuen bezala, Udalak beretzat hartzea bi edo hiru lokal, herriaren beharrak asetzeko.

Iñaki Garcia zinegotziak ere arrazoi bera ematen du, bere ezezko botoa arrazoitzeko.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, BALDINTZA PARTIKULARREN ORRIA, ORIOKO UDAL PLANEAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO 8. SEKTOREKO —MUNTO— EXEKUZIO-UNITATEAREN BIRPARTZELAZIO-PROIEKTUTIK ERATORRIKO PR/1 PARTZELAREN PARTAIDETZA INDIBISOA (%21,1130) BESTERENTZEKO, LEHIAKETA PUBLIKO BIDEZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, adierazitakoak ikusita, eta Gertutasuna, Giza Balioak eta Herri Antolaketa batzorde Informatzaileak 2010eko martxoaren 9an egindako bilkuran emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **BOST ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Garcia (EB-B/Aralar), guztira **KONTRAKO BOTO BAT**; abstentzio botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa), Iturain (EB-B/Aralar) eta Lasa (EA), guztira **BOST ABSTENTZIO BOTO**]:

ONARTZEA baldintza partikularren orria, Oriko udal planeamenduko arau subsidiarioetako 8. sektoreko —Munto— exekuzio-unitatearen birpartzelazio-proiektutik eratorriko PR/1 partzelaren partaidetza indibisioa (%21,1130) besterentzeko, lehiaketa publiko bidez; baldintza-orriaren laburpena honako hau da:

1.- Erakunde adjudikatzailea.

- A) Erakundea: Oriko Udala.
- B) Espedientea tramitatzen duen bulegoa: Idazkaritza-kontu-hartzaitza

2.- Kontratuaren helburua.

Helburuaren deskribapena: Oriko udal planeamenduko arau subsidiarioetako 8. sektoreko —Munto— exekuzio-unitatearen birpartzelazio-proiektutik eratorriko PR/1 partzelaren partaidetza indibisioa (%21,1130) besterentzea, lehiaketa publiko bidez.

3.- Tramitazioa, prozedura eta adjudikatzeko era.

- A) Tramitazioa: Ohikoa.
- B) Prozedura: Irekia.
- C) Era: Lehiaketa publikoa.

4.- Lizitazioaren kopurua.

1.190.000 eurotan ezartzen da; kopuru horretan ez daude sartuta ez BEZa, ez notario-gastuak eta ez Jabetza Erregistroaren gastuak; horiek adjudikaziodunak ordaindu beharko ditu.

5.- Bermeak.

- A) Behin-behinekoa: 35.700 EURO.
- B) Behin betikoa: Adjudikaziodunaren behin-behineko bermea atxiki egingo da salmentaren prezioa ordaintzen duen arte.

6.- Iragarki gastuak.

Adjudikaziodunaren kontu eta kargura izango dira.

7.- Kontratistaren betebeharrak espezifikokoak.

Baldintza ekonomiko-administratiboaren orriaren 9. artikuluan adierazitakoak.



8.- Eskaintzei buruzko datuak.

- a) Aurkeztu beharreko dokumentazioa: Baldintza ekonomiko-administratiboen orriaren 11. artikuluan adierazitakoa.
- b) Lizitatzailera bere eskaintzari eustera behartuta dagoen epea: 3 hilabete.

9.- Dokumentazioa, informazioa eta eskaintzen aurkezpena.

Orioko Udala. Herriko Plaza 1, 20810 ORIO

10.- Datak.

- A) Dokumentuak eta informazioa lortzeko eta eskaintzak aurkezteko epemuga: 20 egutegiko egunen barruan, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita, 8:30etik 14:30era.
- B) Eskaintzak irekitzeko eguna eta ordua: Proposamenak aurkezteko epea bukatu eta hirugarren laneguneko 12:00etan; egun hori larunbatarekin egokitzen bada, data hurrengo lanegunera pasako da.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, BALDINTZA PARTIKULARREN ORRIA, ORIOKO ITURBIDE 11N DAGOEN MERKATARITZAKO LOKAL BAT BESTERENTZEKO, LEHIAKETA PUBLIKO BIDEZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Gertutasuna, Giza Balioak eta Hirigintza batzorde informatzaileak eta Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzaileak 2010eko martxoaren 18an egindako bilkura bateratuan emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Iturain (EB-B/Aralar) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **SEI ALDEKO BOTO**, udalbatzarkideen gehiengo absolutua; kontrako botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburua (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa) eta Garcia (EB-B/Aralar), guztira **LAU KONTRAKO BOTO**; abstentzioak: Lasa (EA), guztira **ABSTENTZIO BAT**]:

ONARTZEA baldintza partikularren orria, Orioko Iturbide 11n dagoen merkataritzako lokal bat besterentzeko, lehiaketa publiko bidez; baldintza-orriaren laburpena honako hau da:

1.- Erakunde adjudikatzailea.

- A) Erakundea: Orioko Udala.
- B) Espedientea tramitatzen duen bulegoa: Idazkaritza-kontu-hartzailletza

2.- Kontratuaren helburua.

Helburuaren deskribapena: Orioko Iturbide 11n dagoen merkataritza lokal bat besterentzea.



3.- Tramitazioa, prozedura eta adjudikatzeko era.

- A) Tramitazioa: Ohikoa.
- B) Prozedura: Irekia.
- C) Era: Lehiaketa.

4.- Prezioa.

Lizitazio tasa: 70.701 EURO.

5.- Bermeak.

Behin-behinekoa: 2.121,03 EURO.

6.- Iragarki gastuak.

Adjudikaziodunaren kontu eta kargura izango dira.

7.- Dokumentazio teknikoa lortzeko.

Espedientearen dokumentazio teknikoa Udaleko bulego teknikoan dago ikusgai.

8.- Proposamenak aurkeztea.

- A) Epea: Berrogei egutegiko egun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.
- B) Aurkeztu beharreko dokumentazioa: Baldintza-orrian zehaztutakoa.
- C) Tokia: Udaletxeko idazkaritza-kontu-hartzailletza. Herriko Plaza, 1. 20810 ORIO.
- D) Orduetgia: Astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era.

9.- Proposamenen irekiera.

- A) Tokia: Orioko Udala
- B) Data: Proposamenak aurkezteko epea bukatu eta hirugarren lanegunean; egun hori larunbarekin egokitzen bada, data hurrengo lanegunera pasako da.
- C) Ordua: 12:00etan.

Emandako botoa azaltzeko, talde mistoko Joseba Goiburu zinegotziak hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak kontrako botoa eman duela aztergai-zerrendako hirugarren puntuan emandako arrazoi beragatik: ez dagoelako ados Udalak bere lokalak saltzearekin, zeren eta, lokal horien bidez, aukera izango bailuke herritarren beharrei erantzuteko.

6.- ESKATZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALERRIKO ORIBARZAR HONDARTZARI BAJA EMATEA BAINATZEKO EREMU GISA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Udaleko Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzaileak diktamena eman zuen gaiari buruz 2010eko martxoaren 18an



egindako bilkuran eta, diktamen horren bidez, udalbatzarrari eskatu dio erabaki bat hartzea eta honako hau eskatzea Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Saileko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzari: Orioko udalerriko Oribarzar hondartzari baja ematea bainatzeko eremuen erroldan, 2010eko bainu-denboraldirako. Eskari hori egiteko arrazoiak hauek dira: azken urteetan behin eta berriz kalifikatzen da bainatzeko eremu hori kalitate ‘eskasekotzat’ (zerbitzuak itxita daude, uraren kalifikazio sanitarioa ‘txarra’ da eta ‘bainurako desegokia’ da, hondartzan lohia dagoelako eta arriskutsua delako); horrek Orioko hondartzen irudi txarra ematen du eta hori areagotu egiten da, askotan, ez delako behar bezala bereizten Antilla hondartzaren eta Oribarzar hondartzaren artean (Antilla hondartzak ‘ona’ du uraren kalifikazio sanitarioa; bainatzeko, ‘bainu libreko’ baldintza sanitarioak ditu; eta, azkenik, hondartzaren baldintza higieniko-sanitario ‘onak’ ditu).

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzaileak 2010eko martxoaren 18an egindako bilkuran emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Garcia (EB-B/Aralar) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **SEI ALDEKO BOTO**, udalbatzarkideen gehiengo absolutua; kontrako botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa), Iturain (EB-B/Aralar) eta Lasa (EA), guztira **BOST KONTRAKO BOTO**]:

ESKATZEA Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Saileko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzari Orioko udalerriko Oribarzar hondartzari baja ematea bainatzeko eremuen erroldan, 2010eko bainu-denboraldirako, goian azaldutako arrazoiengatik.

Emandako botoa azaltzeko, Bixente Lasa zinegotziak (EA) hartzen du hitza eta adierazten du gaur bertan egon dela Oribarzar hondartzan eta urak garbi-garbi zeudela eta, beraz, ez duela ulertzen nola esan dezakeen Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak hondartza kutsatuta dagoela.

Iñaki Iturain zinegotziak (EB-B/Aralar) hartzen du hitza eta adierazten du Oribarzar hondartzaren arazoan irtenbidea beste bat dela: hondartza garbitzea, beharrezko bada; adierazten du, baita ere, bere ustez, han ez dagoela arriskurik igeri egiteko eta arazo bakarra abiada bizian pasatzen diren uretako motoek sortzen dutela.

Leire Zinkunegi zinegotziak (talde mistoa) hartzen du hitza eta adierazten du bere taldea Oribarzar hondartzan bainua debekatzearen kontra dagoela, eta Tokiko 21 Agenda planean onartuta dagoela hondartza hori berregokitzeko proiektua egitea. Bere talde politikoaren ustez, bainatzeko debekua ezartzeak ez dakar, inola ere, hondartza garbitzeko eta lohi zikinak kentzeko ardurari uko egitea; Leirek adierazten du ezinbestekoa dela Ingurumen Ministerioa inplikatzeko Oribarzar hondartza berregokitzeko lanetan, bera baita gai honetan eskumena daukan organoa.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du Oribarzar hondartzan marea behean sortzen direla arazoak, aspaldiko jarduera industrialek kutsatutako lohiak agerian



geratzen direnean; bere ustez, gaur egun dauden arazoak konpontzeko, hiru aukera daude:

- 1.- Itsasertzetako Zuzendaritza Nagusiak, eskumena daukan organoa denez, bere gain hartzea Oribarzar hondartza berregokitzeko kostuak; baina ez daude prest hori egiteko.
- 2.- Bigarren aukera litzateke Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak hartzea bere gain hondartza berregokitzearen eskumena; baina Sail horrek dio inguru babestu bat dela.
- 3.- Hirugarren aukera litzateke Orioko Udalak hartzea bere gain eskumen horiek; baina organo eskudunek ez dizkiote Udalari lan horri ekiteko baimenak ematen.

Berriro hartzen du hitza Leire Zinkunegi zinegotziak (talde mistoa) eta alkateak adierazitakoaren kontrako iritzia agertzen du; adierazten du bera dagoeneko jarri dela harremanetan Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailarekin eta han esan diotela, inguru horretan Udalak zerbait egin nahi badu, behar duen bakarra hau dela: udal aurrekontuan partida bat izendatzea Oribarzar hondartza berregokitzeko lanak kofinantzatzeko.

Azkenik, Iñaki Garcia zinegotziak (EB-B/Aralar) hartzen du hitza eta adierazten du ezin zaiola eutsi Oribarzar hondartzaren gaur egungo egoerari, Osakidetza behin eta berriz ari delako bertan bainatzearen kontrako txostenak egiten, kalitatea 'oso eskasa' dela eta 'bainatzea debekatuta' dagoela esanez.

7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALAREN ETA GIPUZKOAKO DONOSTIA KUTXA KREDITU-ENTITATEAREN ARTEAN SINATUKO DEN EUSKARAREN ERABILERA AREAGOTZEKO HITZARMENAREN TESTUA ETA ALKATEARI AHALMENA EMATEA HITZARMEN HORI SINATZEKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Euskara eta Hezkuntza batzorde informatzaileak 2010eko otsailaren 25ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**, udalbatzarkideen gehiengo absolutua]:

- 1.- **ONARTZEA** Orioko Udalaren eta Gipuzkoako Donostia Kutxa kreditu-entitatearen artean sinatuko den euskararen erabilera areagotzeko hitzarmenaren testua.
- 2.- **AHALMENA EMATEA** alkateari hitzarmen hori sinatzeko, Orioko Udalaren izenean.

8.- IZENDATZEA, EGOKI BADA, KONTSEILARI TITULAR BAT ETA ORDEZKO BAT, GIPUZKOA DONOSTIA KUTXAREN BATZAR NAGUSIAN ORDIZIA, URNIETA, SEGURA ETA ORIO UDAL ELKARTUEN ORDEZKARI IZATEKO.



Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; Udaleko Hazienda, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2010eko martxoaren 16ko bilkuran emandako diktamenaren arabera, honako hau proposatzen du: Arantza Gonzalez Garcia eta Juan Maria Tomasena Alzuri izendatzea kontseilari titular eta ordezeko, hurrenez hurren, Gipuzkoa Donostia Kutzaren Batzar Nagusian, Ordizia, Urnieta, Segura eta Orioko udal elkartuen ordezkari izateko.

lñaki Iturain zinegotziak (EB-B/Aralar) hartzen du hitza eta adierazten du Kutzaren kontseilari titular eta ordezeko horiek izendatzeko proposamena EAJren eta Ezker Batua-Berdeak taldearen arteko akordio baten emaitza dela eta, beraz, bere alderdi politikoak, Aralarrek, ez duenez proposamena babesten, horren kontrako botoa emango duela.

lñaki Garcia zinegotziak (EB-B/Aralar) hartzen du hitza eta adierazten du hala dela: izendapen horiek egiteko proposamena EAJk eta Ezker Batua-Berdeak taldeak udal agintaldiaren hasieran adostutakoaren emaitza dela.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hazienda, Pertsonala eta Kalitatea batzorde Informatzaileak 2010eko martxoaren 16an egindako bilkuran emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV) eta Garcia (EB-B/Aralar), guztira **BOST ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Iturain (EB-B/Aralar), guztira **KONTRAKO BOTO BAT**; abstentzio botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa), Lasa (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **BOST ABSTENTZIO BOTO**]:

1.- ARANTZA GONZALEZ GARCIA (15.968.893 nortasun-agiria) kontseilari titular **IZENDATZEA** Gipuzkoa Donostia Kutzaren Batzar Nagusian, Ordizia, Urnieta, Segura eta Orioko udal elkartuen ordezkari gisa.

2.- JUAN MARIA TOMASENA ALZURI (15.135.180 nortasun-agiria) kontseilari ordezeko **IZENDATZEA** Gipuzkoa Donostia Kutzaren Batzar Nagusian, Ordizia, Urnieta, Segura eta Orioko udal elkartuen ordezkari gisa.

9.- ONARTZEA, EGOKI BADA, TALDE MISTOKO KARMELE BELASKO, JOSEBA GOIBURU ETA LEIRE ZINKUNEGI ZINEGOTZIEK AURKEZTUTAKO MOZIOA, DESAGERTU ETA HILDA AGERTU DEN JON ANZA ORTUÑEZ EUSKAL HERRITARRAREN KASUARI BURUZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; mozioak, hitzez hitz, honela dio:

EGIA NAHI DUGU!

Jon Anza Ortuñez euskal herritarrak 2009ko apirilaren 18an Baionatik Okzitaniako Tolosara zihoan tren hartu zuen. Hori izan zen bere senideek Jon



ikusi zuten azken momentua. Hilabete beranduago, Maiatzaren 18an, Baionako fiskaltzak ikerketa zabaldu zuen senideen desagerpen salaketaren ostean.

la urte bete beranduago, 2010eko Martxoaren 11an, Jonen gorpua izan zitekeena Okzitaniako Tolosako hil-etxean aurkitua izan zela zabaldu zuten zenbait hedabide frantses eta espainiarren aldetik. Hedabideetan zehar gertatutakoaren inguruko informazio bat zabaltzen zen bitartean, Jonen sendiari aipatu hirira hurbiltzeko deia helarazi zioten gorpua Jonena zen egiazta zezan. Hara iristerakoan baina, oztopo eta debekuak bata bestearen atzetik iristen hasi zitzaizkion, gorpua ikusteko debekua ezartzeraino. Azkenean konfidantzazko sendagile batek egiaztatu ahal izan zuen gorpua Jonena zela.

Urte honetan guztian Jonen inguruko berririk izan ez arren, jaso ditugu bere desagerpenari loturiko albiste eta informazio ezberdinak. Informazio hauek guztiek desagerpen honen gaineko susmorik ilunenak indartzea ekarri dute:

- ETA erakundeak Jonen militantziaren berri eman zuen. Gaineratu zuen Jonek erabiltzen zuen zulo bat poliziek aurkitu zutela eta beraz poliziak jakitun zirela Jonen militantziaz, Jonen hatz markak bertan aurkitzearen ondorioz.*
- Frantziar poliziak Jonen senideei jakinarazi zien beraien hipotesien artean zegoela Jonen desagerpenean espainiar poliziek esku hartu izana.*
- Gara egunkariak publiko egindako informazio batek Jonen desagerpena Espainiako polizien bahiketaren ondorioz etorri zela argitu zuen.*
- Joseba Egibarrek zuzenean galdetu zion Rubalcabari ea Jon Anzaren desagerpenean polizia espainiarrek parte hartu ote zuten, herri honetan aurrez izandako antzeko kasuak gogora ekarriz.*
- Jacques Massey frantziar kazetari eta irakasle ezagunak buruturiko hainbat ikerketa eta elkarrizketen ondoren Jon Anza Espainiako poliziek bahitu eta hil zutela ondorioztatzera iritsi zen.*
- Pariseko Liberation egunkariak buruturiko erreportaiak norabide berean landu zuen gaia, Espainiako Polizien inplikazioaren susmoa indarra hartzen ari dela azpimarratuz.*

Honetaz gain gogora ekarri behar dugu bai Espainiako Entzutegi Nazionalak, bai Baionako auzitegiak Jon Anzaren desagerpena argitzeko ikerketak abian dituztela.

Okzitaniako Tolosako hil-etxean Jonen gorpua agertu ondoren, Baionako prokuradoreak honakoa azaldu zuen bertsio ofizial moduan:

- Apirilaren 29an Jon Okzitaniako Tolosako parke batean aurkitua izan zela burua jardineran batean zuela.*



- *Pertsona partikular batek emergentzi zerbitzuak deitu eta hauek bihotz masaje bat eman ostean Jonek pultsua berreskuratu zuela.*
- *Tolosako Purpan ospitalera garraiatua izan zela.*
- *Hortik eta ondorengo egunetan konortetik gabe egon zela eta ez zuela konortea berreskuratzea lortu.*
- *11 egunetara, Maiatzaren 11n, ospitale horretan zendu zela.*
- *Orduz geroztik gorpua Tolosako hil etxean gordeta egon dela, identifikatu gabeko pertsona moduan.*
- *2010eko Martxoaren 11 baino egun batzuk lehenago Medikuntza Legaleko Institutuko funtzionario batek bere lagun polizia bati gorpu ez identifikatu baten izana azaldu ziola.*
- *Polizia honek Jonen arropan Baionatik Tolosarako 2009ko Apirilaren 18rako eta itzulerarako Apirilaren 20rako bi tren txartel aurkitu zituela, eta Jonen gorpua izan zitekeela ondorioztatu zuela.*

Ez dugu sinisten Frantziar Poliziak zabaldu duen bertsioa, eta hainbat galdera mahai gainean jarri nahi ditugu:

- *Non egon zen Jon desagertua apirilaren 18tik 29ra bitarte?*
- *Nork deitu zuen Jon banku batean aurkitu zuela esanez?*
- *Nork jaso zuen Jon eta ospitalera eraman?*
- *Non dago Jonek zeraman dirua?*
- *Zein mediku arduratu zen Jonen egoeraz bera ospitalean egon zen bitartean?*
- *Non daude Jonen inguruan egindako mediku-parteak?*
- *Non dago Jonen hiltze agiria?*
- *Ospitaleak Jonen heriotzaren berri epaile eta polizia eman zien. Zer egin zuten poliziek edo epaileek informazio honekin?*
- *Ikertu al zuten hilda agertu zen gorpua norena izan zitekeen?*
- *Poliziak bazuen aurrez Jonen ADN-a, baita senideena ere. Gorpuari egin al zizkioten ADN frogak? Zeintzuk izan ziren emaitzak?*
- *Baionatik Tolosara zihoan pertsona baten desagerpena lau haizetara zabaldu da azken hilabeteetan. Data antzekoetan bidai horretako tren txartela zeraman*



pertsona ezezagun bat agertu da eta ospitalean hil. Nola da posible orain arte loturarik egin ez izana?

– Jonen desagerpenaren inguruko ikerketan zehar ez zen bere berri galdetu hiriburu honetako ospitale nagusian? Galdetu bazen, zein izan zen jasotako erantzuna?

– Zergatik familiari konfirmatu aurretik berria komunikabideetan filtratu du poliziak?

– Zergatik ez zaio utzi familiaren konfidantzazko medikuari autopsian bertan egoten?

– Zergatik guardia zibil batzuk Tolosako hotel batetik presaka eta korrika atera ziren, desagerpenaren berri eman zen egun berean?

Jonen heriotza ulertzeko argigarriak izan daitezke azken bi urteotan euskal herrian eman diren bahiketa salaketak ere. Juan Mari Mujika, Lander Fernandez, Alain Berastegi eta Dani Saralegi euskal herritarrek salaketa juridikoa burutu zuten epaitegietan eta salaketa publikoa egin zuten komunikabideen aurrean, gertatu zitzaiena azalduz eta salatuz. Lauek polizia indarrek bahitu eta beraiekin kolaboratzeko mehatxu egin zietela azaldu zuten, horretarako presioak eginez, eta Berastegiren kasuan torturak erabiliz.

Aurrez aipatu ditugun gertaera nahiz informazioek, eta Euskal Herrian bizi dugun errepresio egoerak Jon Anza Espainiako polizia indarrek atxilotua izan zitekeela pentsatzera garamatza.

Jonen desagerpenaren aurrean udal honek honako adierazpenarekin bat egiten du:

1.- Jon Anza euskal herritarrarekin gertatutakoaz benetako kezka adierazi nahi dugu. Jonen senide eta hurbilekoei babesa eta elkertasuna helarazten die udal honek.

2.- Anne Kayanakis Baionako prokuradoreari zuzentzea ondorengo eskatuz; Jonen desagerpenaren inguruko ikerketa sakona egin dezala eta ez dezala inongo aukerarik baztertu, bereziki estatuen gerra zikinarena, horretarako beharrezko tresna eta galdeketa guztiak eginez.

3.- Jonen heriotzean Espainiako Poliziak nahastuak egon daitezkeenaren susmoak gure egiten ditugu. Jonen desagerpena ikertzeko irekiak daude prozedura judizial guztiak bururaino eramateko deia egiten dugu.

4.- Euskal Herrian ematen ari diren gerra zikinaren adierazpenekin amaitzeko deia egiten dugu. Euskal Herrian ezarri den errepresio egoerarekin amaitzeko deia egiten dugu, Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoa elkarrizketaren konpontzeko nahia agertzen dugularik.



5.- Adierazpena honen berri herritarrei, Jon Anzaren familiari, hedabideei eta Baionako prokuradoreari zein Frantziako gobernuko presidenteari ematea.

Iñaki Iturain zinegotziak (EB-B/Aralar) hartzen du hitza eta adierazten du bat datorrela, orokorrean, mozioan egiten den analisiarekin eta, beraz, mozioaren bost puntuak onartzearen alde dagoela, guztiz; hala ere, adierazten du seigarren puntu bat eranstea proposatzen duela, hitzez hitz honela dioena:

6.- Horrekin batera adierazi nahi dugu ETAk Paris aldean burutu duen ekintza armatuak gizon baten hilketa ekarri duela, eta horrek ez dakarkiola ezer onik ez Euskal Herriari ez munduari. Arrazoi horrengatik eskatzen diogu ETari behin betikoz utz ditzala alde batera armak eta ekin diezaiola bide politiko soilari.

Joseba Goiburu zinegotziak (talde mistoa) hartzen du hitza eta adierazten du bere taldeak ez duela, inola ere, onartzen seigarren puntu hori sartzea mozioan; proposatzen du, hortaz, bi bozketa egitea: hau da, batetik talde mistoko zinegotziek aurkeztutako mozioa bozkatzea, bere bost punturekin eta, bestetik, Iñaki Iturain zinegotziak proposatzen duen mozio osatua bozkatzea, sei puntu dituen.

Ondorioz, aurrena talde mistoko zinegotziek aurkeztutako mozioa bozkatzen da, eta emaitza honako hau da:

Aldeko botoa ematen dute Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa), Garcia (EB-B/Aralar) eta Lasa (EA) zinegotziek; guztira, **BOST ALDEKO BOTO**. Kontrako botoa ematen du Rodriguez (PSE-EE-PSOE) zinegotziak; guztira, **KONTRAKO BOTO BAT**. Abstentzio botoa ematen dute Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Genoba (EAJ), Del Hoyo (EAJ) eta Iturain (EB-B/Aralar); guztira, **BOST ABSTENTZIO**.

Ondorioz, udalbatzarrak honako hau **ERABAKITZEN DU: ONARTZEA** talde mistoko Karmele Belasko, Joseba Goiburu eta Leire Zinkunegi zinegotziek aurkeztutako mozioa, desagertu eta hilda agertu den Jon Anza Ortuñez euskal herritarren kasuari buruz, goian jasota dagoen bezala.

Ondoren, Iñaki Iturain zinegotziak aurkeztutako mozio alternatiboa bozkatzen da (talde mistoko zinegotziek aurkeztutakoa gehi seigarren puntu bat); bozketaren emaitza honako hau da:

Aldeko botoa ematen dute Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Genova (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Iturain (EB-B/Aralar) eta Lasa (EA) zinegotziek, guztira **SEI ALDEKO BOTO**, udalbatzarkideen gehiengo absolutua. Kontrako botoa ematen du Rodriguez (PSE-EE-PSOE) zinegotziak; guztira, **KONTRAKO BOTO BAT**. Abstentzio botoa ematen dute Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa) eta Garcia (EB-B/Aralar) zinegotziek; guztira, **LAU ABSTENTZIO**.

Ondorioz, udalbatzarrak honako hau **ERABAKITZEN DU: ONARTZEA**, baita ere, Iñaki Iturain zinegotziak aurkeztutako mozio alternatiboa, goian jasota dagoen bezala.



Emandako botoa azaltzeko, talde mistoko Joseba Goiburu zinegotziak hartzen du hitza eta adierazten du 'ezker abertzaleak' argi eta garbi azaldu duela bere jarrera gai honi buruz eta euskal gatazka konpontzeko modua elkarrizketa eta negoziazioa dela.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako batzuk hitza hartu eta gero, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,